TXINPARTAK

32. alea
2016 Uda

BURDINOLAko berriak. Legazpiko Burdin Museoko Lagunen Elkartea
Asociación de Amigos del Museo del Hierro de Legazpi

SALETXE, HOGEI URTE ETA GERO



Arg: Julen Auzmendi

AURKIBIDEA

SALETXE, HOGEI URTE ETA GERO…….. 3
EL DÍA INTERNACIONAL DE LOS MUSEOS EN LEGAZPI……..... 9
LEGAZPI Y EL MAR…….. 10
DOCUMENTO FOTOGRÁFICO DEL MONTAJE DE UNA INSTALACIÓN FABRIL…….. 12
ACTOS Y USOS EN LAS CORPORACIONES MUNICIPALES (1880-1930)……..……... 14
VISITA AL VALLE DE AYALA……..... 16
ZEPADI BATEN LEHEN INDUSKETA…….. 18
FOTÓGRAFOS PROFESIONALES DE LEGAZPI: SANTI GABIRIA…… 19
ZEGAMAKO LEKU-IZENAK…….. 23

BURDINOLA ELKARTEA
Latxartegi 10, behea. 64. p.k. 20230 Legazpi
Tel: 943034071 burdinolaelkartea@gmail.com

SALETXE, HOGEI URTE ETA GERO

Ehun urte bete dira Martin Ugarte Azurmendi, "Saletxe", jaio zela (1916-1996). Aurten, hortaz, mendeurrena. Era berean, badira hogei urte joan zela. Ondorengo lerroetan aurkituko duzuna, lan handiago baten zati bat besterik ez da. Horregatik hemen azalduko duguna, oraindik ikerketa prozesuan aurkitzen da. Dena dela, merezi du zeozer Saletxez esateak[1]. Izan ere, bi hamarkadek ematen duten ikuspuntuarekin aztertu da, edo berraztertu nahi da, Telleriarteko idazlea. Izan dadila hau nire omenaldi txikia.



Arg: Julian Auzmendi

Bere lan nagusiak

Saletxeren lan zabalera gerturatzeko hiru ate nagusiak, bere hiru liburuak dira. Ordena kronologikoan aipatuko ditugu. *On egiñaren obaria* eleberria (1972), Arriantxo sasi-medikuaren inguruan eraikitakoa da. Pentsa liteke, hau ikusita, Saletxeren idazteko grina berandukoa izan zela. Baina hau ez da horrela. Saletxeren obraz eskuratu dudan material zaharrena 1958 urtekoa bada ere, -eta baliteke material zaharragoak ere izatea batean edo bestean-, ordurako "egindako idazlea" dela esan liteke. Horrek gaztetatik zetorkion prozesu bat adierazten du.

Gaur egungo irakurlea liburu honen aurrean izutu egiten da. Azalez, ez da irakurketa errazeko liburua. Bere hizkera hiper-barrokoa[2] dela-eta, esaldi bakoitza liseritu egin behar da, hitzez hitz, kontakizuna jarraitzeko. Hori lan nekosoa da gaurko irakurlearentzat. Baina, zuzena izatekotan, esan dezadan, behin Saletxeren estilo hori asimilatzen den unean, idazkera berezi horren barne-koherentzia antzematen dela. Ez da artifizialtasunez edo pedantekeriaz sortutako idazkera zail bat, ez. Autoreak behar duen espresabideak bideratzen duen idazkera da, guretzat irakurtzeko zaila izanda ere.

Baina azal lodi hau zulatzen denean, handik aurrerakoa errazagoa da. Lanaren egitura ikusten badugu, gertakariak nolako erraztasunez lotzen dituen, eta irakurleak nola "bisualizatu" ditzakeen nabarmenduz, batzutan pentsatu izan dut nolabaiteko izaera "zinematografikoa" ere baduela lan honek. Bestetik, liburu hau idazteko Saletxek nolabaiteko dokumentazio-lana egin zuen: Itsaso, Arriaran, Ataun edo Ursuarango paraje batzuk erabiltzen dira kokapen modura, bere leku izen eta guzti, hainbat pasarteetan.

Saletxeren bigarren lan handia *Jatorriaren errotik* poema liburua da (1986). Beharbada, zeozer errazagoa da gaur egungo irakurlearentzat. Akaso poesiaren moldeetara moldatu beharrak ez zion uzten hain barrokoa izaten idazkeraz. Baina ez gaitezen nahastu: Saletxeren ukitu berezia du lan guztiak. Bi zatitan banatzen da lan hau: batetik *Aizkorri artzain poema* eta bestetik, *Tankalaren leloan*. Bi zati hauen artean badira ezberdintasunak.

Lehenean, artzaintzaren inguruko poema bat burutu zuen Saletxek. Zati askotan bere burua aipatzen du, bera ere gaztetan Aizkorrin artzain izan zelako. Bigarrenean berriz, olak eta errotak aipatzen ditu. Ezezaguna izan gabe, gai hau arrotzagoa zaio, normala denez, errotari eta olagizon izan ez zelako. Bi lanek duten estiloa ere ez da berbera. Bigarren zatiak, halako ukitu modernista batzuk ere baditu, akaso 1960 eta 1970 hamarkadetako euskal literaturaren berrikuntzaren urrutiko arrastoak-edo.

Lan hauetarako egindako dokumentazio-lana, bere eleberrikoa baino apalagoa bada ere, antropologia aldetik egunen batean ikertu beharko diren pasarte batzuk ere agertzen dira, batez ere lehen zatikoak. Egiari zor, "*Jatorriaren errotik*" liburuak badu hirugarren zati bat, *Euskal esaera zaarrak* deitua. Honako hau berak batean eta bestean entzundako esaera zaharren bilduma bat da. Baina puntu hau bere lexikoa ikertzean aipatuko dugu.

Hirugarren lan handia, *Legazpi barrutiko itzen bilduma* da (1993). Lan honen inguruan behin baino

gehiagotan idatzi dut[3], eta hortaz ez du merezi asko luzatzea. Legazpiko hizkerako lexikoa jaso nahi izan zuen Saletxek, baina “bere erara”. Hau da, (euskara literarioaren eraginik ez zuten) legazpiar hiztunei jaso beharrean, bere kasa idatzi zuen lan hau, burura zetorkiona paperean ezarriz. Zintzotasun handiko lana da, legazpierara egindako gerturatze saioa eta ahalegina oso handia izan zelako. Baina espero zitekeen bezala, Saletxeren estilo literariokoak ziren, eta legazpierarenak ez diren, hitzak ere agertzen dira liburuan, gutxi batzuk badira ere.

Juana Arregi eta Martin Ugarte ezkontza egunean

Lan honetaz azken urteetan izan dudan iritzia argi samarra da. Batetik, ez duela balio “Legazpiko lexiko” bezala. Baina bestetik, eta hau ez da gehiegi azpimarratu oraindik, ondo ikerketu eta zehaztu beharreko aberastasun etnografiko handi baten emana aurkitzen da orrialde horietan. Eta lan hau ere egin beharko da noizbait.

Saletxeren hizkera-erregistroak

Saletxek, beraz, bi hizkera-erregistro erabili zituen. Bata “hizkera literarioa”. Bestea “hizkera lexikala” deituko duguna. Bere poesietan (argitaratuak eta argitaratu gabeak) eta eleberrian darabilkien hizkera lehen motakoa da. Bigarrena berriz, “Euskal esaera zaarrak” eta “Legazpi barrutiko itzen bilduma” horretan erabiltzen ditu. Sakonago aipa ditzagun, bietaz badelako zeresana.

Saletxeren “hizkera literarioa”, hizkera jaso bat da. Eta hizkera honen muina, espero zenez, beterriera da. Hori normala da: euskara batua agertu arte, euskara literarioa, gurean, Goierrin, beterriera izan zelako. Hori zen, hain zuzen, apaizen, bertsolarien eta idazleen euskara. Goierriera ez da “idazkera hizkuntza” sekula izan, izpitxo batzuk kenduta.

Arg: Julian Auzmendi

Saletxe baserria berritu aurretik

Baina Saletxeren “hizkera literario” hau ez da konbentzionala. Heterodoxo samarra da. Izan ere, beterriera idatziko eredu zurrunetan agertzen ez diren erantsiak sartzen ditu. Esate baterako, -eta hau da nik Saletxerengan nabaritzen dudan misteriotako bat- Tolosalde ekialdeko hitz dialektalak sartzen ditu bere lanetan. (Orixeren eragina ote?). Eta era berean, bere ekarpen pertsonalagoa ere eransten dio “hizkera literarioari”. Hori batez ere onomatopeietan gertatzen dela iruditzen zait, hauek askatasun eta sormen handiz erabiltzen dituelako.

“Hizkera literario” honek, nahigabean, Saletxeren beste ezaugarri bat agerian uzten du: irakurle fina zela. Goierritar batek Beterriko hizkera bereganatzeko hori nabaritzen da. Eta honakoa ere bai: “hizkera literario” hau sortzea gogoeta luze eta sakonen ondorioa dela. Bakarkako lan izugarria nabaritzen da. Hausnarketa luzea, eta sakona. Eta gogoan izan dezagun: gogoeta prozesu hau euskara batua sortu baino lehen bukatua dago, eta seguruasko 1950 hamarkadako erdialdea baino lehenago ere bai. Aor meritu erraldoia!

Saletxeren “hizkera lexikala” ere aitatu beharko dugu. Saletxeren obren irakurketa egiten den neurrian, gauza bat nabaritzen da idazlearengan. Geroz eta zaharragoa Saletxe, orduan eta kontzientzia handiagoa agertzen duela herri euskararen inguruan. Eta, ez dezadan inor nahastu: “herri euskara” esandakoan Legazpiko euskara dialektala esan nahi dut.

Horra hor paradoxa polita: 1950 urte aldera, herriko dialektoak oraindik indarra eta jatortasuna zuen bitartean, Saletxeren ahalegina “hizkera literario beterritar” horretako lanetara bideratzen zen, batez ere, poesiara. Eta hamarkadak aurrera joan ahala, auzoko hizkera ahultzen eta pobretzen ari

zen neurrian, etxeko hizkera horretara gerturatu zen, berau bultzatu nahian. Baina lehen esan dugun bezala, Legazpiko dialektora egindako gerturapen hori "bere erakoa" izan zen.

Saletxeren "hizkera lexikal" hau ez da beti legazpierearen adierazgarri jatorra[4]. Baina horrek ez du esan nahi ikergarria ez denik. Gogoan izan behar da Saletxeren aita oñatiarra zela, eta ama zegamarra. Bi gurasoak kanpokoak. Gainera, artzain izan zen urteetan, mendian, Oñati, Zegama edo Segurako jendearekin tratua izango zuen. Eta susmoa daukat, kanpoko eragin hauek denak "Legazpi barrutiko itzen bilduma" -n agertzen direla.

Edo beste era batera esanda, liburu honetan Legazpiko hizkera zaharrekoak EZ diren, baina ondoko herrietako hizkera jatorrekoa den lexikoa ager daitekela. Hortaz, liburu honetako emaria baloratzeko, Legazpiko dialektoa ez ezik, ondoko herrietako dialektoak ere zehatz ikertu behar dira. Eta dirudienez, gutxienez honako eremuetako erreferentzia bibliografikoak xehatu beharko lirateke:

- Oñatiko hizkera eta lexikoari buruzko lanak.
- Goierriko herri ezberdinetako hizkera eta lexikoari buruzko lanak.
- Tolosalde ekialdeko herri ezberdinetako hizkera eta lexikoari buruzko lanak.

Eta hortik, banaka banaka, aztertu liteke Saletxek erreferentzia bakoitza, hitz bakoitza, esapide bakoitza, nondik hartzen duen. Baina zeregina ez da hemen bukatzen. Izan ere, Saletxeren lanak, eta batez ere bere "Legazpi barrutiko itzen bilduma" liburua, etnografia aldetik ikertu nahi badira, metodologia paralelo baten beharra nabaritzen da[5]. Erronka intelektuala da Saletxeren alderdi honetan argi egitea, zalantza gabe.

Saletxe autore moduan: hermetismoa eta autokontzientzia

Saletxeren hiru lan nagusiak aipatu ditugu; hiru liburuak, alegia. Dena dela, "*Martin Ugarte, "Saletxe"ren olerki xorta*" izeneko poesia lan enkoadernatua ere aipatu beharrean gaude. Lan argitaratu gabea da, lau hamarkadetako poesia lanak batzen dituena. Poema hauekin "Saletxe ezezagun" bat ez dugu deskubrituko, baina autorearen ñabardura berriak agertuko zaizkigu, batez ere intimistenak.

Poema hauek adierazten dutenez, Saletxek bere lana estimatzen zuela garbi dirudi. Ez da gutxiagorako: bere prozesu kreatiboak luzeak eta ondo hausnartutakoak direla ematen dute. Olerkietan hitz bakoitza aukeratu eta bere tokian jartzeaz gainera, egitura poetikoak, bere luze-zabalean, ondo menderatu eta erabiltzen dituela nabaritzen da. Guzti horrengan, gainera, kasu batzutan idazkera hermetikoa (eta bestetan zuzenean "iluna") dena ezartzen bada, ondorioa erraza da: Saletxeren pieza literario bakoitzak lan handia zekarkion autoreari.

Horrela, normala da, Saletxek bere lanaren estimu zuzena izatea. Jakintzaz, izerdiz eta jatortasunaz bere lanak egiten zituen, baserritarrak soroan bezala. Baina baserriko lanek ez bezala, -nekazal lanak ziklikotasun baten barnean, egin eta berregin egin behar izaten dira-, bere lanek geroa bilatu nahi dute. Horretarako daude, esate baterako, lau hamarkadetako lanak, (enkoadernazioak biltzen dituen 1958-1989 arteko lanak), makinaz idatziak eta enkoadernatuak.

Bere buruarekiko, eta bere lanarekiko, sortzaile batek jokabide hau edukitzea estimagarria da, bere lana ikertu behar duenarentzat. Alde batetik, ikertzerako orduan, autorearen eta lanaren inguruko xehetasun gehiago izaten direlako eskura. Baina bestetik, eta hau garrantzitsuagoa da, artistaren *ethos*-a definitzen laguntzeko baliagarria delako.

Autokontzientzia indartsu hori izateak bere jokabideak argitzen ditu. Saletxek badaki zein gai landu *nahi dituen* eta zein gai landu *behar dituen*. Badaki bere euskara-literarioak nolakoa izan behar duen (nahiz eta sintesi oso pertsonala izan). Badaki, era

Arg. Julian Auzmendi

berean, denboran aurrera joan ahala, euskara zaharra eta mundu zaharraren alde egin beharko duela, gerorako, oroigarri moduan behintzat, gera daitezen. Dena dago ondo hausnartua eta finkatua, nahiz eta bidean barne-korapiloak eta min isilak gainditzea suertatuko zaion.

Eta, akaso, puntu hauen ikerketaren bidez iritsiko gara autorearen barne-muinetara. Alde batetik, bere hizkuntza eta kulturaren alde egin nahi duen euskaltzalea dugu; hamarkadaz hamarkada herri hizkerarekiko kontzientzia handiagoa eta zorrotzagoa duen euskaltzalea. Bestetik, eta hau ez da ahaztu behar, sortzailea ere badugu: gogoeta luzeak eta sakonak, bere hitza arropakera egokiz adierazteko. Sentitzen zuena espresatu behar zuen artista bat agertzen zaigu[6].

Horrela bada, azken puntura iristen gara: Saletxe pertsona. Bere lanaren irakurketa zehatzek, tarteka, min existentzial batzuk azaltzen dituzte. Baina existentzialismo hori era isil batean agertzen da, hermetismo baten atzean. Mina zerk eragingo dion ez du esango, eta mina espresatzeko modua ere ez da zuzena izango. Baina badirudi, bere lehen faseetako poesia hura behintzat, batzutan arima-gozagarri ere bazitzaiola[7].

Goiko lerroetan aipatu ditugun ezaugarri hauekin, askok espero ez duten autore baten ertza marraztu dugu. Saletxe ez da idazle kostunbrista. Inola ere ez. Ez da baserriaren apologia egingo dizuna ere. Ezta. Nortasun handiegia dauka horrelako korronte sinplistetan geratzeko. Barru-barrutik *idatzi beharra* sentitzen zuen pertsona bat izan zen, bere aberastasun guztiarekin.

Zein da Saletxeren garrantzia eta itzala gaur egungo Legazpin?

Oso txikia, edo akaso, hutsa. Zalantza gabe, hainbat arrazoien bidez, Saletxe “autore ahaztu” bilakatu da. Lehenik Legazpiko euskal giroa aipatu behar da. Edo euskal giro eza. Izan ere, XXI mende hasiera honetan legazpiar gehienek erdararen aldeko erabaki sendoa hartu dute. Batzuk ez dakite euskararik. Eta besteek, berriz, euskara jakinda ere, erdarari eman diote garrantzia.

Honekin ez dut inoren jokabidea epaitu nahi; bakarbakarrik azalpen deskriptibo bat egiten ari naiz, gaia hobe uler dadin. Ondorioz, oso indar txikiko euskal giro bat dugu Legazpin[8]: jende gutxi da euskararen aldeko hautua egin duena. Taldetxo hau aztertzen bada, (edo “taldetxo hauek” hobe esanda, talde anitzak direlako), badirudi ezaugarri bat betetzen duela: Legazpiko euskal girotxoa, batez ere, baserriko jendeak (eta euren ondorengoek) eta ondoko herrietatik etorritako jendeak (eta euren ondorengoek[9]) osatzen dutela.

Martin, Juana eta Inazio anai-arrebak Saletxe aurrean

Martin eta Juana senar-emazteak etxe aurrean

On egiñaren obaria

Jatorriaren errotik

Legazpi barrutiko itzen bilduma



Martin Ugarte, "Saletxe"ren oleki xorta

Eta, hortaz, Saletxeren eraginen bat ikusi behar bada, talde txiki honetan ikusi beharko da. Baina hemen zailatasun berriak sortzen dira. 1960 hamarkadatik aurrera, nekazal eta kale munduaren artean dagoen lubakia geroz eta handiagoa da. Ez erreferente mailan soilik, ez hizkera mailan soilik, baita sozialki ere[10]. Eta Saletxe lubakiaren alde batean geratzen da, bere jaiokera eta izate baldintzak era batekoak direlako. Baina ez zen gotortu lubakiaren alde horretan[11]. Gertakari hauek denak nabarmentzen bazituen ere, autorearen nortasun handiagatik bere obra garaiko korronte sozial eta artistikoetatik libre samar geratzen da, ingurugiroaz "indibidualizatua" bezala, bere obrak beste helburu batzuk betetzen zituelako.

Saletxeren mundu literarioarekiko ez da interesik Legazpin[12]. Arriantxo, Urolako olak edo Aizkorriko artzaintza, gai urrunegiak dira, exotikoak izan gabe[13], Legazpiko euskaldungo urri eta ahul horrentzat. "Autore ahaztua" hortaz, gure Saletxe.

Oharrak eta bibliografia

Goian esan bezala, ikerketa handiago baten oharrak bakarrik erabili ditut lan hau egiteko. Badakit, hemen esaten ditudan hainbat puntu azaltzeko, hainbat adibide eta xehetasun jarri beharko nituzkeela. Baina ez da hau horretarako lekua, garapen luzeko gaia delako. Bestetik, Saletxek dituen ikerketa eta argitalpen lanak aipatu nahiko nituzke, gainetik:

- Lehen esan bezala, Saletxeren "hizkera lexikala" deitu dudana, hau da, "*Legazpi barrutiko itzen bilduma*" batipat, hitzez hitz xehatu behar da, ondoko herrietako hizkerekin alderatuz.
- Beste hainbeste "*Legazpi barrutiko itzen bilduma*" eta "*Euskal esaera zaarrak*" lanetako erreferentzia etnografiko eta kulturalekin.
- Bere lan literarioagoetan, hau da eleberria eta poesian, ahozko literaturaren ezaugarri batzuk zehaztu beharko lirateke, puntu batzutan badirudielako autoreak baliabide bezala erabiltzen dituela.
- Bere lan guztien zerrenda bat egin beharko litzateke. Izan ere, bere hiru lan argitaratuez gainera, poesia lanak, ipuin kontaketak, besteen lanetan kolaborazioak... badirelako. Bere lan osoen edizio batek (edizio kritikoa beharko luke, autorearen izaera ezagututa), mereziko luke?
- Dena dela, eta lan handiena, oraingoz ezinezkoa ematen duena, Saletxe bera gogoan hartzea litzateke, errekonozimendua, aitorpen apal bat. Behintzat euskal giro txiki horretan. Baina nola?

Aitor Azpiazu Ugalde

Artikulu txiki eta mugatu hau egiteko erabili dudan bibliografia hau izan da:

AZPIAZU UGALDE, AITOR
- 2009a. *Saletxeren ondare bereziena*. In *"Txinpartak"*, 17 alea. Legazpi. Burdinola.
- 2009b. *Gipuzkoako hegoaldeko euskara. Brinkolan jasotako lexikoa eta etnografia gaiak*. Legazpi. Burdinola.

OTAEGI, IOKIN
- 2005. *Saletxeren gutundegia*. In *"Txinpartak"*, 10 alea. Legazpi. Burdinola.

"SALETXE", UGARTE AZURMENDI, MARTIN
- 1958-1989. *Martin Ugarte, "Saletxe"ren olerki xorta*. (Argitaratu gabea).
- 1972. *On egiñaren obaria*. Zarautz. Itxaropena argitaletxea.
- 1986. *Jatorriaren errotik*. Legazpi. Legazpiko udal kultur etxea.
  1993. *Legazpi barrutiko itzen bilduma*. Legazpi. Legazpiko udala.



[1]Autore berezia eta poliedrikoa da gure Saletxe. Horregatik, nire artikulu honetan azalduko dudan ikuspegiarekin lotura handirik ez duen ikerketak ere jaso ditzake. Ikus Iokin Otaegiren artikulu ederra. (OTAEGI, I. 2005: 14-16)
[2]Saletxeren idazkera honetarako, ikus AZPIAZU UGALDE, A. 2009a: 18-19.
[3]Ikus, AZPIAZU UGALDE, A. 2009b: 31, eta batez ere, AZPIAZU UGALDE, A. 2009a: 18-19.
[4]AZPIAZU UGALDE, A. 2009a: 18-19.
[5]Lan honen konplexutasuna azaltzeko adibide txiki bat besterik ez. Saletxek bere "Legazpi barrutiko itzen bilduma" lanean, 163 orrialdean, ALBOKA(KEA hitza aipatzen du bere eratorri ezberdinekin. Guk ikertutakoaren arabera, Saletxeren garaian Legazpin ez zen albokajolerik izan. Bai ordea Zegaman eta Ursuaranen (azken hauek artzain giroarekin lotuta; lehenengoak ez hainbeste). Horregatik, oso litekeena da Saletxek bere gaztaroan albokari zegamar edo ursuarandarren bat jotzen aditu eta ikusi izana, (Aizkorrin? Urbian? Zegaman? Edo Ursuaran bertan?), edo behintzat albokaren berri izana. Baina, kontu hau EZ da Legazpiko folklorea, eta bai ordea, Zegamakoa eta Ursuarangoa. Hortaz, Saletxek ALBOKA(KEA hitza "Legazpi barrutiko itzen bilduma" lanean jarriagatik, ez da Legazpiko kultura zaharreko elementua (eta honekin ez dut ukatu nahi duela bi mende Legazpin alboka jotzen ez zenik: ez dakigu. Badakiguna da orain ehun urte ez zela jotzen, orain arte egindako ikerketen arabera...). Eta bere liburu honen baitan, halako kasu korapilatsuak dezente izango direnaren susmoa dut. (Osatzeko, esan dezadan azkenaldian Segurako alboka baten berri izan dugula, baina honen inguruko informazio handirik ez dugu oraindik, eta hortaz, berau testuinguratzea ezinezkoa zaigu)./ "Euskal esaera zaarrak" lanak ordea, abantaila bat du: esaerak nori jaso dizkion aipatzen duela. Eta hemen ere, espero zena gertatzen da, alegia, iturriak ugariak eta leku askotakoak direla: gurasoak, Arriurdineko artzain zaharrak, Arantzazuko astazainak... baina baita ere telebistakoak, irratikoak... (SALETXE. 1986: 193)
[6]Nire ustez bere sortzaile lana, puntu bateraino, euskaltzaletasunaz disoziatu daiteke. Edo beste era batera esanda: galtzeko arriskuan ez den hizkuntza baten kidea izanda ere, munduko hizkuntza mintzatuenaren kidea izanda ere, Saletxek barrukoa espresatzen segiko zukeen.
[7]"Gozagarri" horren atzean jarri dudan aditza GOZAU da, eta horrek Legazpiko hizkera zaharrean "sendatu" esan nahi du.
[8]Eta askotan ez da erraza paradoxa hau ulertzen. Euskal giroaren ahultasun hau bezain nabaria da Legazpik euskal kulturari eman diona: bertsolariak, idazleak, poetak, kazetariak, itzultzaileak, ikerleak... Banaka-banaka hartuta, jende estimagarri asko sortu du Legazpik. Baina badirudi etxean ez direla profeta izan./ Ahultasun horren ondorioa baita ere, Legazpiko euskalkiaren etorkizun iluna da. Legazpiko gazteek, -herritik kanpora euskaraz mintzatzera behartuak aurkitzen direnean-, egiten duten euskara "goierriera estandar" baten antzerako zeozer da, baina ez legazpiera. Legazpiera nortasun handiko hizkera lokala da, ezaugarri markatuak dituena, baina erabilpen oso txikikoa gazteen artean.
[9]Legazpiko euskara eta herri-kultura gehien ikertu dituzten bi autore handienak, Gerhard Bahr eta Jose Luis Ugarte, biak ala biak kanpoko gurasoen ondorengoak dira. Baina Saletxeren kasua ere berbera da: ama Zegamakoa eta aita Oñatikoa.
[10]Halako hutsunea, esate baterako, Idiazabal herrian aurkitu du Jexux Urteaga kultura-eragileak, behin eta berriz azaldu duenez. Idiazabal herri txikia eta euskalduna izanda ere, baserri eta kalearen arteko lubakia geroz eta handiagoa da. Idiazabalen bi eremu euskal-hiztun hauek eremu independente bezala jokatzen dute askotan. Familia loturatik haratago, badirudi baserritar adinakoen eta kaletar gazteen artean ikusezina den muga bat sortu dela. Urteagak dionez, baserriarekin lotura familiarrik ez duen gazte idiazabaldarrari, baserri-mundura iristea, edo harekin harremana izatea, oso lan zaila egiten zaio, nahiz eta geografikoki bertan egon. Hori Idiazabalen; pentsa hortik, Legazpi bezalako herri batetan bi eremu hauen arteko zirriztua nolakoa ote den.
[11]Bestetik, Ergoenako biztanle askoren XX mendeko bizia izan zuen Saletxek, lantegiko lana eta baserriko jarduna uztartuz.
[12]Badirudi, kanpotik begiratuta, Saletxeren mundu erreferentzialak interesgarriagoa izan behar duela gaur egungo zegamar, aztiriar, gabiriar, zeraindarrentzat... legazpiarrentzat baino.
[13]Exotikoak balira, askorentzat irakurterrazak lirateke.

Ante la ausencia de un amigo, la presencia de su recuerdo.

Arg: BURDINOLA

El pasado mes de mayo, a los 92 años, falleció Sebastián Azpilikueta, "Sebas" para los amigos. Asiduo colaborador de Burdinola en las limpiezas de campo, su ingente colaboración estuvo también presente en los sondeos de zepadis llevados a cabo por nuestra sociedad en los años noventa en los montes de Legazpi.

Al ser Sebas una persona de carácter amable y de trato jovial, su capacidad comunicativa era un don del cual nos beneficiábamos todos los componentes del grupo.

La imagen que acompaña este comentario muestra perfectamente el ambiente distendido y participativo en el que se desarrollaron las jornadas de trabajo; momentos memorables que con el paso del tiempo se han ido afianzando en nuestras mentes y es ahí, ante la perdida, en este caso, la de "Sebas", resulta lógico que los recuerdos afloren y nos embargue cierta añoranza por aquellas memorables jornadas.

Allí donde te encuentres descasa en paz y, desde aquí, te damos las gracias por tantos momentos de buena camaradería en los cuales nos has hecho participar.

BURDINOLA

EL DÍA INTERNACIONAL DE LOS MUSEOS EN LEGAZPI



Arg: Santiago Fernandez de Quincoces.

Ricardo Mediavilla inmerso en su demostración de forja.

Arg: Santiago Fernandez de Quincoces.

Juan Mari Burguera en su espacio expositivo.

Todos los años tiene lugar el 18 de mayo la celebración del Día Internacional de los Museos y con motivo de ello, en Legazpi, han tenido lugar una serie de actos promovidos por la fundación Lenbur. Entre las diferentes actividades programadas se ha contado con la participación de Juan Mari Burguera y Ricardo Mediavilla. Ambos han abierto sus espacios creativos al público conjuntamente con el museo Chillida Lantoki y tal propuesta ha atraído a más de 250 visitantes interesados en conocer estos lugares museísticos y de creación artística. La cita fue el pasado domingo 15 de mayo, a las 11.00 horas.

Los talleres de trabajo de Juan Mari Burguera y Ricardo Mediavilla se encuentran ubicados en la antigua papelera Patricio Elorza, a tan solo escasos metros de Chillida Lantoki. Fue en este museo donde se inició el acto de puertas abiertas y por parte de Lenbur, al público asistente, se le explicó el origen del espacio que ocupa hoy en día Chillida Lantoki y los fines culturales y divulgativos que se llevan a cabo en él.

El grupo de asistentes fue dividido en dos grupos para poder visitar, alternativamente, los talleres de Juan Mari y Ricardo. Ambos explicaron la experiencia que han vivido, a lo largo de los años, en sus respectivos espacios de creación artística y las motivaciones e inquietudes que estos medios les proporciona.

Ricardo Mediavilla realizó demostraciones de forja y en el espacio de Juan Mari los participantes al acto pudieron contemplar, en su particular museo, una serie de obras que abarcan toda su dilatada carrera artística.

Pedro Vega

LEGAZPI Y EL MAR

Legazpi se halla, geográficamente, bastante alejado del mar. Pero ¿hemos estado tan ajenos a la historia marítima? Y más importante todavía: ¿Ha sido tan grande la barrera mental entre las poblaciones del interior y las de la costa?

Cuando éramos niños, Zumaia o Donostia significaban para nosotros la visita a la playa, donde nos divertíamos y el panorama no chocaba con las habituales montañas que nos rodeaban. Pero las playas no dejan de ser un invento moderno, promocionadas cuando los reyes las pusieron de moda debido a las recomendaciones médicas que aseguraban efectos beneficiosos para los bañistas, lo mismo que lo hicieron con balnearios como Zestoa.

Lo que actualmente llamamos playa se conocía en otras épocas como “los arenales”, y se trataba de un espacio no destinado al recreo, sino al trabajo: allí se fabricaban los barcos y se construían grandes cabañas donde se guardaban instrumentos de navegación y se almacenaba el bacalao procedente de Terranova, a la espera de la llegada de los mulateros que se encargaban de introducir hacia el interior de la Península un producto tan codiciado como la pesca.

¿Por qué razón era tan importante el pescado en la dieta alimentaria en otros tiempos? La Iglesia había considerado que la carne debía prohibirse durante muchas fechas a lo largo del año, pero especialmente en la época de la Cuaresma. El pescado era el sustituto apropiado para sustituir la ingesta de carne.

Aquí entra de lleno el protagonismo de las mujeres de los pueblos costeros. Las jóvenes pescateras llevaban el pescado fresco, acomodado sobre sus cabezas, a los pueblos de tierra adentro. Las mujeres se encargaban de secar el bacalao que no llegaba en condiciones para preservarlo comestible durante un tiempo; también se encargaban de conservar el besugo pescado en invierno: lo evisceraban, troceaban, freían, y lo introducían en pequeños barriles junto con aceite, vinagre y algunas especias, de modo que mantenían el besugo escabechado en buenas condiciones como para ser consumido durante un par de meses. El preparado del escabeche, faena en la que las mujeres adquirían un papel importante, resultaba económicamente muy rentable, porque evitaba las prisas de hacer llegar el producto fresco a poblaciones alejadas.

Los barrilillos que contenían el escabeche eran acomodados a lomos de mulas y comercializados, durante la época de la Cuaresma, en Gasteiz, Castilla, o incluso la propia Corte, donde residía el gobierno. Se trataba de un producto estratégico que

Arg: Gorka Salmerón.

Arg: Gorka Salmerón.

Arg: Gorka Salmerón.

procuraba empleo y ganancias a los pescadores, a las mujeres que manipulaban el pescado, y a los transportistas encargados del transporte.

Pero lo hasta ahora dicho parece que sólo afecta a la población costera. ¿Tenía Legazpi, en concreto, alguna otra relación con el mar que no fuera la de receptora del pescado, o de la grasa de ballena que en aquellos tiempos se empleaba para iluminar los hogares y los talleres?

En el interior, la pobreza de la tierra hace que se busque relación con las zonas trigueras o con el mar, por donde también llegaba el cereal. La riqueza de Legazpi radicaba en sus bosques y en la producción de hierro, únicos elementos que se podían ofrecer para obtener los alimentos que la tierra apenas les proporcionaba. Y es aquí donde entra en juego la estrategia mercantil: ofrezco herramientas de hierro a cambio de alimentos y otros elementos que ayudan a sobrevivir y promocionar así una vida más soportable.

La conexión más directa con el mar se establece a través de Bedua, en la ría del Urola. Allí funcionaba una gran lonja o almacén, actualmente convertida en restaurante, donde por lo menos desde el siglo XV se establecen las relaciones de las poblaciones del valle con el mar. Los mercaderes se encargan de conducir allí clavazón, hachas, azadas, armas, y un variado surtido de instrumentos que se llevarán a importantes mercados marítimos. Lisboa, Sevilla, y en general el Mediterráneo y el Atlántico, se convierten en receptores de los materiales trabajados en Legazpi, que llegan incluso a las Indias.

A Bedua llegaban los productos de zonas agrícolamente feraces como Andalucía y Bretaña, y los mulateros (los camioneros de la época) se encargaban de hacerlos llegar a poblaciones como nuestra villa. De este modo se establecía una relación fructífera que maridaba el interior rico en hierro con un mar abierto a un mundo de oportunidades.

El mar no ha sido, por tanto, para los legazpiarras, un área extraña y lejana, sino apetecida y buscada. Los ferrones sabían lo que fabricaban: productos destinados a la exportación. Para ello, estaban muy atentos a las necesidades de los distintos destinos desde los que llegaban las demandas de productos determinados. Los mercaderes, nuestros embajadores en un mundo alejado de los valles, se encargaban de un *marketing* inusualmente moderno, y algunos de ellos viajaban a puertos alejados acompañando a las preciosas mercancías que los artesanos les habían suministrado.

José Antonio Azpiazu

El 25 de febrero José Antonio Azpiazu ofreció una charla en Kulturetxea, sobre la relación que han mantenido los vascos y las vascas a lo largo de la historia con el mar, tema que ha abordado en su último libro "Y los vascos se echaron al mar".

